

» DISKOA

Beste harribitxi bat



Joxi Ubeda Goikoetxea


Xabier Montoiak beste harribitxi bat atera du. Beste kantu eder sorta bat: kantu onak, hunkigarriak, soilak eta sendoak. Giroak lasaiak dira, melodia politak, eta kantak oso ongi jantziak daude, beren neurrian, apaingarri gutxi dituzte baina nahikoak.

Kantek barru-barruan nabaritzeko egoerak eta sentipenak azaltzen dituzte: denboraren joana, oroimena, adiskidetasuna, maitasuna, eustea, zutik irautea, aurrera egitea... Xabier Montoiaren ahotsak eta kantatzeko moduak, musika tresnen notekin ongi lagunduta, ederki transmititzen du hori guztia, eta kantek zirra-sorrarazten dute.

Ibon Rodriguezek egin duen lana aipagarria da, pianoa eta gitarra jo eta abesteaz gain konponketak eta grabazioa prestatzeko zereginak egin ditu. Hark sortu ditu diskoan dauden hamar kanten orkestra moldaketak, paperaren gainean idatzi, eta partiturak Itziar Lertxundi (txeloa eta ahotsak), Monika Peino (biola), Leire Pikabea (biolina) eta Xabier Zeberio (biolina) musikariek bikain interpretatu dituzte Fredi Pelaez soinu teknikariaren gidaritzapean Beasaingo Pottoko estudioan.

Aspaldi nengoen Xabier Montoiaren disko berriaren zain –aurrekoa, *Montoiaren mundu miresgarria* (Bidehuts) 2011n kaleratu zuen–, onartu behar baitut oso atsegin dudala egiten duena, bai diskoetan bai liburuetan, eta disko berria ere oso gustuko dut.

Sortzaile handia da, bere ibilbidean hamaika kanta eder sortu ditu. *Beti oporretan* (Esan Ozenki, 1995) bakarka kaleratu zuen



Gorraizea

XABIER MONTOIA

Gaztelupeko Hotsak, 2017

lehen diskoa eta gero, beste sei osatu ditu, eta diskoz disko beti zerbait desberdina egin du. Pop-rock, gitarra doinu indartsuak, elektronika, eta beste hainbat modutan jantzi izan ditu bere kantak, baina denetan dago bere begirada, ikuspegia eta nortasuna, bere inspirazioa, kantak egiteko modua, bere estiloa. *Gorraizea* lana aurreko diskoaren orpotik etorri da, eta txeloa, pianoa eta gitarra akustikoaz gain, beste hari musika tresna batzuk erabili ditu.

Lan berriaren kantekin jendaurreko emandialdi udaberri aldera egingo omen dituzte. Horien zain gaude, beraz, kanta hauek bertatik bertara sentitzeko, jotzen ari diren unean. ■

Xabier Montoia
idazle eta musikaria
(Gasteiz, 1955).

